



Auzia euskaraz APPa

Justizia arloan euskara sustatzeko **APP** bat garatu dugu, Eusko Jaurlaritzak sustatutako [Auzia Euskaraz](#) proiektuaren barruan.

Abokatu, prokuradore eta notario euskaldunen komunitatea indartzeaz gain, hizkuntza-baliabideak mugikorrean izateko aukera garatu nahi izan dugu.

Auzia euskaraz APPa

Lau hitzetan azalduta

Norentzat da:



Abokatu, prokuradore eta notario euskaldunei zuzendua batez ere, eta baita zuzenbideko ikasle-irakasleei ere. Euskara juridikoan interesa duen edozein profesional euskaldunentzat, edo auzi bat euskaraz sartu nahi duen herritar ororentzat.

Zertarako:



Hizkuntza juridikoaren inguruko baliabideak mugikorrean izateko.

Estatuko legeak, eredu judizialak, hiztegi juridikoak, glosarioak, abokatuen formularioak... 400.000 itzulpen baino gehiago.



Eragileen arteko sarea indartzeko.

Eragileen arteko komunikazioa, ezagutza eta lankidetzatza bultzatzeko tresna izan nahi du APPak

Auzia euskaraz

Eragile nagusiak elkarlanean

Auzia Euskaraz proiektuaren helburua justiziako auzi bat osorik euskaraz izapidetu ahal izatea da. Proiektuko eragileen arteko komunikazioa eta elkarlana sustatzeko hainbat baliabide garatu dira: [itzulpen juridikoen kontsulta](#), [web gunea](#), [e-Toolbar tresna](#), pilula juridikoak, [buletin elektronikoa](#), ...

Orain APParekin beste urrats bat eman nahi izan da, baliabideak eta zerbitzuak mugikorrean eskuragarri jarritz.



Auzia euskaraz APPa

Helburuak

Justizia arloan jarduten duten kanpo-eragile nagusien arteko komunikazioa sustatzea eta hizkuntza-baliabideak hornitzea da APP honen helburua.



Hauek dira Auzia Euskaraz APParen **helburu nagusiak**:

- Abokatu, prokuradore eta notario euskaldunen **komunitatea sendotzea**
- Euskara emaileen komunitaterako **kide berriak lortzea**
- Profesionalen artean **euskararen erabilera indartzea**
- Urtetan landutako hizkuntza-**baliabideak profesionalen esku jartzea**
- Hizkuntza juridikoarekin lotutako **zalantzak argitzea**, hizkuntza-kalitatea bermatuz
- Hizkuntza-normalizazioko lantaldearen **zerbitzua hobetzea**
- Justizia Sailean epaiBiko taldeak garatzen dituen **tresna eta baliabideak eskatu** ahal izatea (e-Toolbar, pilulak, buletina)

Auzia euskaraz APPa

Aplikazioaren aukera nagusiak



The screenshot shows the app's main screen with a green header containing the logo 'Auzia euskaraz'. Below the header are four circular icons: 'Profesional euskaldunak' (orange), 'Auzia Euskaraz' (blue), 'Zuretzat' (pink), and 'Euskara juridikoa kontsultatu' (green). A hamburger menu icon is in the top left. Orange arrows point from text descriptions on the right to these icons and the menu.

Ezarpenen menua
Profilaren datuak, azken bilaketak, harremanetarako, saioa itxi. Twitter, Facebook eta blogeko jariora kontsultatzeko aukera..

Profesional euskaldunen aurkibidea
Abokatu, prokuradore edo notario euskaldunen erroldan bilaketak egiteko aukera.

Auzia Euskaraz proiektuari buruzko informazioa
Aurkezpen bideoa eta proiektuari buruzko informazioa.

Zuretzat atala
Euskara emaila egiteko, e-Toolbar tresna eskatzeko eta buletinean edo pilula juridikoetan harpidetzeko aukera.

Euskara juridikoa kontsultatu eta galderak egin
400.000 itzulpen juridiko baino gehiago klik bakar batean. Lexiko juridiko normalizatua eta Justiziako Euskara Batzordeak adostutakoa (8.000 unitate), epaitegietako idazki-eredu elebidunetako testuak (35.000 unit.), Estatuko Legeria euskaraz (56.000), abokatuentzako formulario elebidunak (10.000), unibertsitateetako glosario juridikoak (20.000), euskarazko epaitza eta epaiak (32.000)...

[Euskara emailentzat](#) euskara juridikoaren inguruko **galderak** egiteko aukera.

Sarrera pantaila

Auzia euskaraz APPa

Aukera nagusien adibideak

The image displays four screenshots of the Auzia Euskaraz APP interface, each with an orange arrow pointing to a specific feature:

- Screenshot 1 (Auzia Euskaraz):** Shows a video player. An orange arrow points to the video, with the caption: "Auzia Euskaraz zer den azaltzen duen bideoa ikusten."
- Screenshot 2 (Euskara juridikoa):** Shows a list of legal actions. An orange arrow points to the "Denuncia" option, with the caption: "Erabiltzaileak 'Denuncia' testua kontsultatzen."
- Screenshot 3 (Zuretzat):** Shows the "Euskara Emaileen Komunitatea" section. An orange arrow points to the "e-Toolbar tresna eskatu!" button, with the caption: "Zuretzat atalean e-Toolbarra bulegoan instalatzeko eskatzen."
- Screenshot 4 (Profesionalak):** Shows a list of lawyers. An orange arrow points to the list, with the caption: "Gipuzkoako abokatu euskaldunen zerrenda (*proba datuak) ikusten."

Below the screenshots, there is a summary box with the following text:

Bide batez...
Atariko eginbideak

Diligencias preliminares

Pantaila sarreran termino bat erakusten da.

APPak euskara emaileri galdera juridikoak egiteko aukera ematen die.
Auzia Euskaraz bultzatzeko prestasuna duten eragile juridikoek osatzen dute "Euskara Emaileen Komunitatea".